

FUNTSEZKO JARDUERAK:

• Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure funtsezko jarduera zainketa, laguntasuna eta elkartasuna zerbitzua eskaintzea da adin mota guztietako pertsoneri.

Funtsezko jarduera lortzeko, gure enpresan sareko jarduerak oso garrantzitsuak dira. Gure webgunean (hamelinenlagun.com) informazi guztia era egokian antolatuta izatea komenigarria izango litzateke.

Garrantzitsua da negozioa hasi aurretik langileak ondo hautatzea. Hautatutako pertsonekin langileen datu-base bat sortuko da kontratatzeko, bezeroen eskaria handitzen denean hautatutako profesionalekin harremanetan jarri ahal izateko.

Garrantzitsua da ere, guk enpresa-kudeaketan ezagutzak izatea edo, bestela, prestakuntza jasotzeko prest egotea edo kontabilitate- eta administrazio-lanetan lagunduko dion aholkulari on bat bilatzea.

Gure enpresan arazoren bat egotekotan, gure ustetan, hasieratik ikasi behar da egon daitezkeen arazoak eta horiek negozioan duten eragina minimizatzen. Batzuetan, arazoaren arazoak ezagutzeagatik bakarrik ateratzen da ondorioa; beraz, kontuan hartu behar da negozioaren estrategia gisa.

Gure enpresa eta proiektua aurrera atera dadin, balorezko proposamenean azaldutakoa egingo dugu. Baina modu sakonean azalduta:

Gure enpresa hamelinenlagun.com webgunearen bidez funtzionatuko da, hori gure oinarrizko tresna izango da. Webgunean, zerbitzu mota desberdinak eskainiko dizkiegu bezeroei.

Webgunean aukeratzen den zerbitzuaren arabera, prezioak eta ordutegiak desberdinak izango dira.

Gure enpresak **egunez** hurrengo ordutegiak izango ditu:

- **Astelehenetik ostiralera:** 8:00-20:00ak arte
- **Larunbatetan:** 10:00-19:00ak arte
- **Igande goizetan:** 12:00ak arte
- **Jaialdietan** ez dugu zerbitzurik emango.

Gure enpresak **gauez** hurrengo ordutegiak izango ditu:

- **Astelehenetik ostiralera:** 21:00-8:00ak arte
- **Larunbatetan:** 21:00-7:00ak arte
- **Igande goizetan:** 10:00ak arte
- **Jaialdietan** ez dugu zerbitzurik emango.

Ordutegiak aukeratzekoan eta beraz, zerbitzu bat aukeratzekoan, ahalik eta azkarren bidaliko dugu langile bat ere izena eman duen pertsonaren etxera. Argi dago, zerbitzuak ez direla infinituak izango, hortaz, hauek agortzekotan, beste langile bat libre egon arte itxaron beharko du interesaturik dagoen pertsona.

Haurrak egunez zerbitzua behar badute, tokatzen zaien zaintzailea haien etxera joango da, gure webgunean mezua jaso bezain laster, langilea ere mezu hori jasoko du.

Bezeroak aukeratutako orduak amaitzean, lokalean egoten bada umea, aukera egongo da etxera eramateko edo gurasoak bere bila joateko. Umeak eta agureak soilik egunez zainketa jaso badute, aukeratutako ordutegia bukatzean, etxera eramateko edo gurasoak bere bila joateko aukera egongo da.

Bestalde, bere zaletasunak konpartitzen dituzten pertsonak, ordutegia amaitzean, haien etxeetara joan beharko dira.